

Bezeroen harremanak

Gure produktua, ez da zerbait berria, arroparen inguruko beste aplikazio eta web asko daude. Horregatik, guretzat oso inportantea da sare sozialetan adibidez oso aktibo egotea, bezeroekin ahalik eta gertuen egoteko. Bertan gure aplikazioaren produktuak eta promozioak ipiniko genituzke, eta instagramen adibidez, bertatik webgunera sartzeko aukera eukiko dute gustoko duten zerbait ikusten badute dena azkarrago izateko.

Gure aplikazioan jarraitzeko denda online bat sortuko dugu arropako erosketak egiteko. Honela, konjuntuak egiteaz gain, arropa hemen erosi dezakezu eta honela gure aplikazioak erakargarriagoa egingo zaizu denei gustatzen zaigulako noizean behin, zerbait falta baldin bazaigu, interneten arropa ikustea.

Bertan atal bat egongo da bezeroen arretarako, non galderak egin dezakete, kexaren bat bat badute hortik ere jarri dezakete eta guretzat inportanteenetariko dena, gure aplikazioa hobetzeko proposamenak egin dezakete guk kontuan izateko eta pixkanaka-pixkanaka hobetzen joateko. Adibidez sare sozialetan “post-aren” bat zerbait desegokia badu edo bertan hobetzeko zerbait badago sare sozialean bertan jarri dezakete edo (guk errexago ikusteko) webgunean ere, eta aplikazioan matxurarik bat badago ere jarri dezakete.

Bezeroen bat eskaera bat egiten badu eta produktua itzuli nahi badu ere derrigorrez gurekin kontaktatu beharko du guk hurari laguntzeko eta ahalik eta modu erosoenean itzulia egiteko. Hori guztiz erraza da, aplikazioan atal bat egongo delako produktuak itzultzeko eta bertan zenbait galdera egingo dira, adibidez, zein den itzuleraren arrazoia edo zein den eskaeraren zenbakia.

Bezeroak “prime” aukera kontratatzen badute erraztasun handia izango dute gurekin kontaktatzeko hori oso kontuan izango dugulak, haien kezka edo zailtasunen aurrean pertsona bat edukiko dute behar dutenarekin laguntzeko. Adibidez, galderaren bat edukitzekotan gure enpresako aditu batekin harremanetan jartzeko erraztasun handiagoa izango dute. Gainera, ‘prime’-arekin, deskontuak ere bildu ahalko dituzu, zure erabileraren arabera, eta honela, jendea aplikazioan sartuko da egunero hilabetero deskontuak lortzeko.